

NIMBY Power: **Zornotzako erreferenduma eta ukazioaren indarra**

Josu Larrinaga
Soziologoa eta EHUKo ikertzailea

Duela urte batzuk, Amorebieta-Etxanon gasa errez energia elektrikoa sortzeko eraiki den zentral termikoaren bultzatzaileek (beste batzuen partehartze txikiarekin, ESB enpresa irlandarra bazkide nagusia duen Bizkaia Energia enpresak) esan zuten ez zutela herriaren borondatearen kontra planta eraikiko (gero enpresaren jarrera aldatu zen); Amorebieta-Etxanoko Udalak (EAEko Jaurlaritzan bazkide nagusia eta politika industrialak gidatzen duen EAJ alderdiak zeukan gehiengoa eta alkatetza) proiektuaren kontra azaldu zuen bere burua (hau ere gorabehera handiekin); Jaurlaritzako Industria sailburu Josu Jon Imazek esan zuen proiektuak beste kokatze bat beharko zuela (hau ere aldatu zen gero); EAJ barruan oso tirabira larriak egon ziren nazio-zuzendaritza proiektuaren alde eta Zornotzako Batzarra kontra jarri eta gero....

Hau guztia lortu zuen herri-plataforma batek (Zornotza Bizirik!!) horrelako erakundetze-formetan ohikoak diren baliabideekin. Bere salaketaren funtsa hau zen: zentral termiko horrek ingurumenean eta zornotzarren bizi-kalitatean eragin ditzakeen kalteak larregizkoak izan daitezkeela.

A few years ago, some promoters (the company Bizkaia Energia with the Irish Company ESB as a major partner, along with lesser participation by others) of a thermal plant that was to be built to generate gas-fired electricity in Amorebieta-Etxanon said that they would not build the plant against the wishes of the citizenry (the company later changed its stance); The Amorebieta-Etxano Town Council (where the Basque Nationalist Party, which is the leading party in the Basque Autonomous Community and which is in charge of implementing industrial policy, had the majority of seats on the council as well as the mayor's office) came out against the project (thereby raising a lot of ruckus); the head of the Department of Industrial Affairs of the Basque Government, Josu Jon Imaz, said that the project should be located elsewhere (he also changed his mind later); there were serious arguments going on within the Basque Nationalist Party after the national leadership and the Amorebieta Congress came out against the project.

A grass-roots movement (Zornotza Bizirik!!, or Amorebieta Alive!!) achieved all of this with resources usually afforded to such institutionalized means. The basis of the denunciation of the thermal plant lay in the fear that there might be too great a damage to the quality of life of the citizens of Amorebieta and the environment.

*“Cuando todo se puede decir,
la forma de censura es el consenso”.*

Hechos contra el decoro

Zornotza Bizirik (oraindik aurrera ZB) Amorebieta-Etxano (Bizkaia)¹ udalerrian, Boroa auzoko poligono industrialean, eraiki den ziklo konbinatuko zentral termikoaren proiektuaren kontra eratu zen herri-plataforma dugu. 2000ko martxoan hasi zen lanean (600 pertsona egon ziren aurkezpenean) eta bi urte eskaseko jardunean sekulako mobilizazio soziala lortu zuen herri horretan ESB enpresa irlandarrak jarri duen zentral termikoaren kontra.

Amorebieta-Etxano udalerriak 15.818 biztanle dauzka (1991ko eroldaren arabera) eta ZBk 15.500 sinadura lortu zituen proiektuaren kontra (horietarik 13.500 inguru ziren udalerriko biztanleenak, besteak; inguruko herrietan jaso zituen); 800 auzokidek alegazio formalak aurkeztu zituzten eta milaka pertsona batu ziren Durangaldeko herri horretan deitutako manifestazioetan. Ikerketa hau egiten genbiltzalarik, ZBk, inolako babes instituzional barik, gai honi buruzko erreferendum bat antolatu zuen eta 5.445 pertsonak botoa eman zuten kontsulta horretan, Amorebieta-Etxanoko eroldaren % 43k, hain zuzen ere.

Gasa errez energia elektrikoa sortzeko eraiki den zentral termikoaren bultzatzaileek (beste batzuen parte-hartze txikiarekin, ESB enpresa irlandarra bazkide nagusia duen Bizkaia Energia enpresak) proiektuaren arlo garrantzitsu bat (hozte-sistema) aldatu zuten, esan zuten ez zutela herriaren borondatearen kontra planta eraikiko (gero enpresaren jarrera aldatu zen); Amorebieta-Etxanoko Udalak (EAEko Jaurilaritzan bazkide nagusia eta politika industrialia gidatzen duen EAJ alderdiak zeukan gehiengoa eta alkatetza) proiektuaren kontra azaldu zuen bere burua (hau ere gorabehera handiekin); Jaurilaritzako Industria sailburu Josu Jon Imazek esan zuen proiektuak beste kokatze bat beharko zuela (hau ere aldatu zen gero); EAJ barruan oso tirabira larriak egon ziren nazio-zuzendaritza proiektuaren alde eta Zornotzako Batzarra kontra jarri eta gero....

Hau guztia lortu zuen herri-plataforma batek, horrelako erakundetze-formetan ohikoak diren baliabideekin: informazioa zabaldu herritarren artean, panfleto xumeak argitaratu, afixak jarri hormetan, elkarretaratzeak egin, prentsa lokalari komunikatuak bidali, udalbatzetan kartelak erakutsi eta parte hartu galdera-eskarietarako txandan, kotxe-karabanak, manifestazioak, sinadura-bilketak, batzar irekiak... Bere salaketaren funtsa hau zen: zentral termiko horrek ingurumenean eta zornotzarren bizi-kalitatean eragin ditzakeen kalteak larregizkoak izan daitezkeela.

1. Badago arazorik, eta ez nolabaitekoa, toponimia eta izendegia erabiltzerakoan. Ikergai dudan herriko jende askok Zornotza deritzo bere herriari eta zornotzartzat dauka bere burua. Izen ofiziala, berriz, Amorebieta-Etxano dugu. Badirudi Zornotza haranean hainbat gune daudela eta historian zehar ezkondu eta desezkondu egin direla, nahitara: Etxano, Ibarruri eta Gorozika (bi hauek, gaur egun, Muxikako udalerrian), Dúdea, Euba, Boroa, Berna, Larrea... Beno, goazen harira: Nik neuk Amorebieta-Etxano erabiliko dut udalerriaz ari garenean eta Zornotza leku fisikoa aipatzen baldin badugu. Eta Amorebieta soila erabiliko dut Amorebieta-Etxanoko herri-gune inportanteenaz, hiri-kaskoaz, aritzen naizenean. Barka endredoak.

ZBren arrakastaren arrazoiak xerka

Hasteko, saia gaitzen *Zornotza Bizirik* taldeak eragin zuen gizarte-mobilizazio deigarriaren arrazoiak edota klabe batzuk era sintetikoan marrazten, beste argitalpen batean era zabalagoan azaldu dugunaren arian (Larrinaga, 2004):

- Amorebieta-Etxano euskal Mugimenduen Gizartean dago eta bertako jendeak metatutako esperientziak, kapital sozialak, badauka, euren interesen alde, ekintza kolektiboak sustatu, bultzatu eta beronetan integrazteko.
- Mehatxua azaltzen denean (ziklo konbinatuko zentral termiko erraldoia: 800 MW), ekologismo politikoaren aktibista apur batzuek, ezkerreko alderdietako zenbait kidek eta hainbat auzotarrek (euren burua zehazki kaltetuta ikusten dutenek) zalapartaka, eskandalua, alarma-deia egiten dute eta horrelako herri ertain batean mantentzen diren sare konektiboak —harreman pertsonalak, erreferentziazko pertsonak, gai horretan mobilizatzeko prestasun altua eduki dezaketenak— aktibatzen hasten dira.
- Zenbait komunikabidek (lokalek, batez ere) gaiari heltzen diote ikuspegi kritiko batez (printzipioz zentral termikoaren balizko kalteekin kezkatuak) eta zalaparta eta harridura, eskandalua, handitzen dute.
- Botere politikoa zalantzati agertzen da —batez ere, hemen leku zentrala betetzen duen EAJ— bai eta enpresa sustatzailea ere, eta horrek eragiten du Amorebieta-Etxanoko biztanle askok egiten duten pronostikoa proiektua geldiarazi ahal izango dutela izatea. Lehenengo hilabeteetan zentralaren kontra daudenen mezua plazaratzen da bakarrik.
- Lehenengo aktibistek eta gero ZB plataformak komunikatzen duten gaitz bildumatik (funtsean mobilizazioa eragiteko Euskal Mugimendu Ekologistak historikoki erabili dituen gai guztiak, era berezi batez modulatuak) zentral termikoak osasunean eta bizimoduan eragingo dituen arrisku larriek —batez ere geroa suposatzen duten umeengan— pizten dute zornotzarren kezka eta eragiten dute jende asko mobilizatzea.
- Planteatzen diren osasunarentzako balizko kalte horiek zornotzarren Bizimodu Onaren definizio soziala kolokan jartzen dute, noiz eta herri horretan arazo historiko pisutsuak (Hirigintzari, Lanari, Ingurumenari, eta abarri dago-kenez) ahal den neurrian gaindituta ikusten zirenean. Boroako poligonoaren inguruan urteetan egindako propagandarako erabilera eta gero oso kaltegarritzat jotzen den proiektua bertan paratzeko dagoen bakarra izateak areagotzen dute zornotzarren haserrea.
- Giro horretan sortzen da Zornotza Bizirik eta sektore anitzeko jendea biltzen da bertara lan egitera. Horrek sinesgarritasuna ematen dio Amorebieta-Etxanoko biztanleriaren aurrean. Hurrengo hilabeteetan bere funtzionamenduan elkarrekin topo egiten duten kultura politikoez (esperientzi handiko aktibistek, militante politikoez, esperientziarik gabeko jendeak, pertsona nagusi eta andreen protagonismoak...) eragin altuko sintesia sortzen dute eta plataformak konexio-maila handia mantentzen du bertako biztanleekin bere mobilizazio-ahalmena sustatze aldera. Batzuentzako larregizkoa izan daitekeen baikortasunak kemena ematen die gizarte-mobilizazioaren maila altuari luzean eusteko, 2002ko apirilko erreferenduma arte.

Osasuna, osasuna eta osasuna. Bizimodu Onaren irakurketa zornotzarra

Osasun pertsonalaren defentsa —eta batez ere umeena— da zornotzarren mobilizazioa eragiten duen faktorerik indartsuena, behin eta berriro euren diskurtsoan gailentzen dena. ZBK ondo jakin du ikuspegi hori lantzen —nahiz eta, esan bezala, mezu orokorrakoak bidali— eta Boroako zentral termikoak eragingo lituzkeen kalte sanitarioak asko azpimarratu dira; gainera eskualdeko mediku eta osasun-profesional multzo handi batek publikoki baieztatu ditu informazio horiek.

Berriro erreparatzen baldin badiegu ZBren komunikazio idatzietan agertzen ziren gaiak ikusiko dugu biosferaren ardatza deitu dugunak (naturarekiko begirunea, arriskua, osasuna, kutsadura, herriko erdigunetik hurbilegi egotea, naturarekiko “umila” izatearen beharra) gai-bilduma osoaren % 23,59 okupatzen duela eta bakarrik demokrazia eta parte-hartzearen ardatzak okupatzen duela espazio komunikatibo gehiago (jadanik azaldu dugu zergatik gertatzen den hori). Baina, beste pauso bat emanez, ikertzen badugu zer-nolako espazioa okupatzen duten pertsonen osasunak eta bizimoduak biosferaren ardatz horretan ikusiko dugu mezu horien % 59,26, hain zuzen ere, jendearen osasun-arriskuei eta bizimoduan jasango dituzten kalteei dagokiela. Gai horrek, horrela bakartua, ZBren gai-bilduma osoaren % 13,97 esanguratsu bat okupatzen du.

Ekologismoaren inguruan eraikitzen diren mobilizazioak funtsean antropozentrikoak dira, behintzat gehiengo zabal baten motibazioei dagokienez: interes pertsonalak, umeak, familiak, erkidegoak superbizitzea, interes lokalak (interes komertzialen gainetik)... daude mugimenduen atzean (Taylor, 1995) eta patroia hori errepikatzen da Zornotzako kasuan.

Eta gaude, Zornotzan mobilizazio honek hartu duen ezohiko indarrak zerikusi zuzena daukala bertan egiten den Bizimodu Onaren irakurketa propio batekin. Ez da Amorebieta-Etxanon espezifikoki ematen den *constructo* sozial bat baina bai azken urteotan gure inguruko herri askotan sortzen ari den definizio sozial komun bat, eta Amorebieta-Etxano horren adierazle paradigmaticoa izan daiteke.

Amorebietan ez da apenas geratzen iraganaren arrastorik. Badaude beste gune batzuk, herriaren historia hobeto islatzen dutenak: Etxano, Boroa bera... baina hirigunean 60ko hamarkadatik aurrera Bizkaian izan den urbanizazio-prozesuak zeharo aldatu du funtsean lehen Ibaizabalen magalean atsedengune bat (jauregi sakabanatu batzuk baino ez zeuden), bilbotarrek urak hartzeko lekua, zena. Gero urbanizazio-prozesu horretan —Euskal Herriak bizi izan zuen gizarte tradizionalarekiko apurketa eta modernizazio-prozesuaren bigarren faseari dagokiona (Gurrutxaga, Pérez-Agote eta Unceta, 1990)— eraiki zen gaur egun hirigunea dena eta oraindik azken urteotan etxebizitza asko eraiki dira. Immigrazioaren urteak dira (Amorebieta-Etxanora jende asko heldu zen 60-70eko hamarkadetan, batez ere Andaluziako iparretik), eta industrializazioarenak.

Horrela sortu diren herrien egoera latza izan da epe luze batean: kaleen urbanizazio burutu gabeak, ekipamendu eta zerbitzurik eza; gero, industriaren birmoldaketaren ajea etorri zen. Amorebieta-Etxanon jadanik aipatu dugu herri-gunearen erdian trafikorekin bizi izandako arazo gogorra. Ibaizabal zeharo kutsaturik egon da Durangon eta Amorebieta-Etxanon bertan zeuden paper-

fabrikekin. Oraindik begi-bistakoa da bertan zenbait ekipamendu, kulturaren aldetik, adibidez, falta direla.

Baina esan daiteke egoera hori dezente hobetu dela azken urteotan: industria-eredu berriak (lantegi txiki edota ertainak, kooperatiba asko) ez du hain nabar-menki kutsatzen, trafikoa herritik at bidali da², asko urbanizatu da hirigunea, ibaia garbiago dago. Gainera, hirigunetik oso hurbil, oso inguru natural ondo zaindua dago: Aramotz mendilerroa, Bizkargi, Etxanoko partea... “Herritik hamar minutura basoa daukagu”, oso esaldi errepikatua da zornotzarren ahotan, euren bizi-kalitatea azpimarratu nahi dutenean.

Funtsean ondo bizi da Amorebieta-Etxanon, edo horrela ikusten dute auzotarrek, behinik behin. Baina aldi berean, paradoxikoa izan badaiteke ere, herri *kolpatuta* (trafikoa, kutsadura, ekipamendu falta) izatearen kontzientzia dago zornotzarren artean. Eta kontraeredua daukate alboko herrian, Lemoan, bi harrobi handi eta porlan-fabriken lanen eraginagatik inguru zeharo kutsatua eta hondatua duena.

Hain zuzen ere, zornotzarrek euren hiri-habitatarekin daukaten erlazio paradoxiko horretan —*hemen bizimodu ona daukagu baina asko kostata, eta oso matxakatuta egon ondoren*— errotzen da Boroako zentral termikoaren kontra hedatu den gizarte-mugimendu indartsua. «Norberaren osasunarentzat eta batez ere umeentzat (etxebizitza asko eraiki da azken urteotan Amorebieta-Etxanon, ongizate horren karira, bikote gazte asko bizitzera geratu edota bertaratu delako) kaltegarria izan daitekeen “munstroa” egin nahi dute, noiz eta orain, hainbeste urtetako ahaleginaren ondoren bizitza-maila ona lortu dugunean».

Paradoxikoa da ere autonomia-, foru- eta udal-erakundeek lorturiko emaitza: bai EAEn, bai Bizkaian, azken hogeitau urteetan boterearen erdigunea okupatu duen EAJ da alderdi hegemonikoa Amorebieta-Etxanon. Ez dago kritika latzik bere kudeaketari buruz. Baina horregatik, hain zuzen ere, ulergaitzagoa egiten zaie zornotzarrei orain “munstrotzat” duten zentral termikoaren eraikitzean alderdi hori tematu izana. Eta alderdiak berak arazoak izan ditu bere aginte lokalak integratzeko.

Zornotza: politiko itxiak baino zalantzatiak, informatzaile argiak eta aktibista zintzo-irudikoak

Gizarte-mugimenduen arrakasta esplikatzen saiatzen garenean Aukera Politikoen Egiturari erreparatu behar diogu ezinbestean. Hau da, mugimenduak botere publikoa kudeatzen dutenengana iristeko ahalmena, horien barne-dibisioa, aliatu eraginkorrek etab. (Tarrow, 1994; Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1996), baita sistema politikoa zabala ala itxia kontsidera daitekeen (Casquete, 1998), hau da mugimenduaren ekinbiderako espazioa dagoen ala ez (*input* zabala edo itxia) eta euren erabakiak inposatzeko erakundeek daukaten ahalmena: *output* indartsua ala ahula (Zubiaga, 1995).

Boroako zentral termikoaren egitasmoaren kasuan erakundeek erabilitako *output* hori oso erabakigarria izan zen. Ezin dugu esan ahula izan zenik, baina,

2. Nahiz eta azken urteotan berriro nabaritzen ari den Debaldea eta Lea-Artibai eskualdeetako industrietatik Barazar mendaterantz doan trafiko astuna.

aldi berean, ez zen indartsua izan ezta ere, ez behintzat eraginkorra izateko baldintzetan. Adjektibo bat erabiltzekotan, esan beharko genuke erakundeek jokatu zuten rola zalantzatia izan zela, askotan ez arre, ez iso jarreretan mantendu zena, eta horregatik ZBK lortu zuen arrakasta inportante bat bere mobilizazioetan. Hain zuzen ere, zornotzarrek borroka horretan irabazterik bazeukatela ikusi zutelako. Klandermars-ek horri deitzen dio “protestaren eraikipen soziala” eta planteatzen du nolabait protesta-ekintzak hasi baino lehen gauzatzen den ebaluazio-prozesu bat dela (Casquete, 1998:97).

Gure kasuan, EAJren jarrera izan zen erabakigarria. Gehiengoa ez erabatekoa zeukan Amorebieta-Etxanoko udalean eta gobernatzen zuen Bizkaiko Foru Aldundian (EArekin batera) eta Eusko Jaurlaritzan (EArekin eta prozesuaren azken partean EBrekin ere bai). Aldundiak zeukan Boroako lur-sailen jabegoa eta Jaurlaritzak industria-politika gidatzen zuen eta hainbat tramite legal onartu behar zuen. Gobernu espainiarrak ere eman zuen hainbat baimen, baina ZBren protestak, ekintzak eta aldarrikapenak Jaurlaritza, Aldundia eta Udalari begira egin ziren. Udalean EH (gero Batasuna), EB eta EA proiektuaren kontra jarri ziren lehenengo unetik eta PSE eta PP nolabait arazotik aparte mantendu ziren jarrera kontraesankorrak edota anbiguoak defendatuz.

Baina EAJk sekulako kontraesanak eduki zituen prozesuan zehar. Udalean aldeko jarrera epelak mantendu zituzten, askotan “herriaren hitza” entzungo zutela esanez baina beti ere anbiguotasunean. Gauza bera egin zuen orduko Industria sailburu Josu Jon Imazek, zeinak memento batean esan zuen ESB enpresak beste kokapen bat topatu beharko zuela, zornotzarren jarrera ikusita.

Bestalde, prozesuaren une batean udalak txosten bat eskatu zion Amorebieta-Etxanon bertan egoitza duen Ingurumen Aholkularitza enpresa ezagun bati. Enpresak egin zuen txostenak argi eta garbi dio Boroa ez dela leku egokia halako azpiegitura kokatzeko.

Prozesuaren azken fasean —ziur asko proiektua sustatzen duen Bizkaia Energia enpresaren akziodunen osaketan aldaketak daudelako— EAJk askoz jarrera argiago hartu zuen Boroako zentral termikoaren alde, baina ordurako Amorebieta-Etxanoko alderdi barneko egitura aldatu behar izan zuen (herriko batzarrean, alderdiko presidente Xabier Arzallus, Industria sailburu Josu Jon Imaz eta Bizkaiko zuzendaritzako lehendakari Iñigo Urkuluren proiektuaren aldeko argudioak entzun eta gero, proiektuaren kontrako botoak gailendu zirenean) eta kanporaketa-espeditentea zabaldu alkatesa eta zinegotziei erreferendum bat konbokatu nahi izateagatik.

Beste elementu garrantzitsu bat: komunikabideen jarrera. Amorebieta-Etxanon badago aldizkari lokal bat, “Hilero”, bere izenak markatzen duen epean argitaratzen dena. Dohainik banatzen da etxez etxe eta oso irakurria izaten da. Informatzaile batzuek Zornotzako iritzi publikoaren egilea izatearen rola luzatzen diote “Hilero” aldizkariari.

Argitalpen horretako zuzendaria EITBko kazetari ezaguna da eta lehenengo mementotik ZBKo aktibista izan zen. ZB osatu zen batzarrean (Zornotza Aretoan egin zena) berak eduki zuen protagonismo berezia eta geroztik ESB enpresaren

aldetik jasotako presio eta mehatxuak salatu zituen publikoki. Bestalde, Bizkaian gehien irakurtzen den egunkariak —normalean honelako arazoetan erakundeen alde paratzen dena, afera ekologistetan “ahots instituzionalaren bozeramailea” deitu dutena (Ibarra, 1995)— ZBren diskurtsoarekiko oso jarrera baikorra azaldu zuen bere orrialde lokaletan. Gero, aldatuko zen jarrera hori. Kontuan hartu behar dugu egunkari horren jabegoan oso ondo kokatuta dagoela energiaren negozioan EAEn leku zentrala daukan finantza-talde bat.

Baina, hasieran behintzat, Boroako proiektua sustatzen duen Bizkaia Energia enpresa Irlandako ESB enpresa elektriko publikoaren ekimena izan zen, bere zabalpen multinazionalean planteatzen zuena. Euskal sistema ekonomiko eta politikokoan *outsider* izate horrek markatu zuen ere afera honen etorrera. *Aktore instituzionalaren* —Ibarrak ematen dion zentzuan (Ibarra, 1995)— barnean, arlo politiko zein komunikatiboan, ikusten diren zalantzek edota eszeptizismoak zerikusi zuzena daukate kanpotar izate horrekin eta eragin positiboa edukiko dute ZBk hasieran lortzen duen mobilizazio-ahalmenean. Lehenengo mementoan ESBk dio Amorebieta-Etxanoko herriak proiektua ez baduela gura, beste leku batera alde egingo dutela.

Finean, “Hilero” aldizkariko zuzendariarekin gertatu bezala ZBren hasieretan Zornotzako hainbat lider sozial integratzen dira dinamika horretan. Publikoki proiektuaren arriskuen inguruan sortu ziren lehenengo salaketak udal-teknikari batek —gero ZBren bozeramaile izango zenak— egin zituen eta horrek, nahiz eta pertsona hori politikoki markatuta egon, sinesgarritasuna eman zion protestari. Oro har, ZBk bere sorrera-batzarrean —Zornotza Aretoan, 600 bat pertsona batu zirela— pluraltasun eta dedikazio monografikoaren (soilik Boroako zentral terminoaren aurka) irudia ematen jakin zuen eta akordio horretara mugatu da gero bere zereginean, horretan ere bere arrakastaren beste klabe bat topatzen dugularik.

Azpmarratzekoa da, partaide batzuen kasuan kasik obsesiboa delako, dedikazio monografiko hori, beste inongo gaietan sartu barik horrela Amorebieta-Etxanoko biztanleen aurrean sinesgarritasuna gordetzeko. Nolabait ZBko aktibista batzuek autozentsura moduko bat edota automugapen bat egiten zuten. Ez zuten pentsatzen zuten guztia bertan adierazten, euren ideologia pertsonala ez zuten bertan hustu, plataformaren izaera mantentzearen.

Eta zeregin horretan egin duen ibilerak ere, betiere jendeari atxikirik eta herri ertain batean oraindik bideragarriak diren komunikatzeko kanal hurbilak (talde informalak, bilera zabalak, kontaktu pertsonalak) mantenduta, eman dio indarra ZBren mobilizazio-ahalmenari. Erabakiak aho batez hartu dira, eta, posible izan ez denean, bozketaren bidez, baina denek onartu dute gehiengoaren erabakia.

Azken ohar bi ZBren eguneroko ibilerari buruz. Aktibista askok aipatzen du adin ertaineko jendea izateak —eta hau ez da ohikoa euskal gizarte-mugimenduen panoraman— sendotasun berezia eman diola plataformaren funtzionamenduari.

Bestalde, ukitu behar dugu emakumeen paper berezitua. Eurek esan bezala emakumeen parte-hartzeak ere eman die dentsitate berezia plataforma barnean gauzatu diren giza harremanei eta askotan andre horiek —euretariko batek esan bezala jadanik ama izaniko emakumeak— jakin dute egunerokotasunean sortzen

diren tirabirak leuntzen eta txarto-ulertuak konpontzen. Batzuetan, erabakiak bozketaren bidez hartu izan dituztenean, andreek ere rol berezia jokatu dute halako prozesuetan azaleratzen diren minberatasunak zainduz.

Erreferenduma

Finean, Aukera Politikoaren Egiturarekiko harremana daukaten gaiei heltzen gaudela, 2002ko apirilaren 14an ZBK erreferendum bat konbokatu zuen —eskatu zion arren, Amorebieta-Etxanoko Udalaren babesik gabe— udalerrri horretako biztanleek Boroako zentral termikoaren proiektuari buruz daukaten iritzia eman zezaten.

Botoa emateko eskubidea zeukan populazioaren % 43k hartu zuen parte erreferendumean (16-18 urte bitartekoek botoa emateko eskubidea izan zuten, baina aparte zenbatu ziren bozka horiek) eta gehien-gehienek ezetz esan zioten proiektuari: jasotako 5.445 botoetatik, 5.352 ezezkoak izan ziren, 53 baiezkoak eta 21 boto baliogabe eta 19 zuri egon ziren. Abokatuek, alkateak eta zinegotziek, unibertsitateko irakasleek, sindikalistek, parlamentariak eta abarrek osatutako Berme Batzorde batek abalatu zuen prozesu osoa, kasu hauetan beharrezkoak diren arau guztiak betetzearren.

Zer esan parte-hartzeari buruz? Estatu espainiarraren ibilbide demokratikoan oso erreferendum gutxi egin dira (frankismotik trantsizioa bideratu zuen Erreforma Politikoarena 1976an; Konstituzioa onartzekoa 1978an; OTANen segitzekoa 1986an) eta denak oso egoera berezietan, honekin alderatze aldera, behintzat. Gauza bera esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Autonomi Estatutua onartzeko egin zen erreferendumaz (1979an). Hala ere, azpimarratzekoa da parte-hartze elektoralak ikertzean OTANen inguruko erreferendumak (kontsulta tematiko bat, erabaki zehatz bat eskatzen duena) ehuneko ia baxuena izan duela (% 59,42) 1976-1991 bitarteko serie elektoralean, 1989ko hauteskunde europarrek soilik parte-hartze baxuagoa eduki baitzuten (Astorki Hualde, 1994). Bai Espainia mailan, bai EAE mailan, jarduera politiko eta elektoralen inguruan dauden erreferentziazko ikerketetan ez dago datu nahikorik (kontsultak gertatu ez direlako) erreferendumetan izaten den parte-hartzeari buruz mintzatzeko (Castillo, 1994; Llera, 1994).

Baina oraingoan, gainera esperientzia gehiago dago: Europar Konstituzioa izena daraman tratatu berria legitimatzeko erreferendum kontsultibo bat egin da Estatu espainiarrean 2005eko otsailaren 20an (egingo dira hau bezalako kontsultak Europako beste zenbait estatutan, baina hau aurrena izan da). Parte hartzea, estatu mailan, % 42,32koa izan zen, % 39,36koa Hego Euskal Herrian, % 38,74koa Euskal Autonomia Erkidegoan eta 37,85koa Amorebieta-Etxanoko udalerrian (datuak prentsarik atera dira).

ZBKoen azpimarratzen dutenez, badira Europar Batasunean (EB) zilegitasun osoa eta parte-hartze baxuagoa eduki duten erreferendumak. Eurek bi kasu aipatzen zituzten, biak Irlandakoak (gogoratu bertako enpresa publikoa dela Boroako proiektuaren sustatzaile nagusia den ESB multinazionala): 2001eko ekainaren 7an Nizako Ituna berresteko egin zena, % 34,79ko parte-hartzearekin eta 2002ko martxoaren 7an abortuari buruzkoa, % 42ko parte-hartzearekin.

Errepaso hau bukatzeko —esperpentoaren esparruan sartzen ote gabiltzan beldur garen arren— azpimarra dezagun Portugaleten 2004ko maiatzaren 24tik 30era bitarte erreferendum bat konbokatu zuela alkatetzak —boto elektronikoa eta guzti— Los Hoyos izeneko etxebizitzaren eraikuntza-lanetan lurra hondeatzeko mailu pneumatikoak edota leherketak erabili behar zituzten erabakitzeko, bertakoen protestak egon eta gero. Bozkatzera deitutakoen % 3,6k (386 pertsonak) hartu zuen parte soilik, nahiz eta parte-hartzaileen artean afari bat zozketatu. Parte-hartzaileen % 55 mailu pneumatikoen alde paratu zen eta Portugaleteko alkateak, Mikel Cabieces-ek (PSOE), emaitza errespetatzeko eta beste erreferendum batzuk konbokatzeko gogoazaldu zuen prozesuaren berri ematean (2004ko ekainaren 1eko *El Correo* egunkariaren Margen Izquierda delako edizioan topa daiteke albistea).

ZBk egindako erreferendumaren indar sinbolikoa apaltzeko esan da ere emaitza horretan agertzen direla proiektuaren kontra dauden guztiak. Hori espekulazio hutsa eta politika-fikzioa egitea da, jarduera eta jarrera elektoralak zer korapilatsuak diren kontuan hartuta. Baina zenbakiak beste aukera batzuk eskaintzen dituzte: apirilaren 14an Boroako zentral termikoari ezetz esan zioten 5.352 botoak gailentzeko, 5.353 boto behar dira, logikoa denez. Beraz, pentsa dezagun botoa eman ez zuten guztiak alde daudela eta erreferendum ofizial batean parte hartuko zutela. Horrek suposatuko luke % 84,54ko parte-hartzea, ZBk bere erreferendumean maneiatu zuen errolda eguneratuaren arabera. Amorebieta-Etxanon hori gertatu eta gero egin ziren hurrengo hauteskundeetan parte-hartzea % 71,57koa —1999ko udal-hauteskundeetan— eta % 83,44koa —EAE osoan parte-hartze *record* eduki zuten 2001eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan— izan zen (EUSTAT, 2002).

NIMBYri aurre, edota gure etxeko baratzearen izaera globalaz

Not In My Back Yard, Ez Gure Etxeko Baratzean³. Horrela definitzen dituzte, batez ere AEBko eskolatik, beren bizimodua arriskuan ikustean sortzen diren mugimendu erreaktiboak, motibazio egoisten arabera mugitzen direnak (Casquete, 1998:106).

Baina izendapenak zori ona eduki du eta zaletu asko topatu du. Ibilbide horretan, baina, kutsu peioratibo handia eman zaio izendapenari, egoisten ekologismoa omen da NIMBYrena. Horren kontra, jadanik Barry Commoner, Ekologismo Politikoaren sortzaileetariko bat altxatu zen, handiari uko eginez: «Errauskailuen industriaren Harreman Publikoetarako adituei berba ederra otu zaie (NIMBY) gu konbentzitzeko errauskailuen kontrako jarrera sinpleki barne-jarrera antzua eta arlotea dela, auzoan agertzen den edozein gauza berriren kontra, gure baratzeetik kanpo edozein gauza desatsegin mantentzeko guraria (...) Errauskailuen kontrako jarreran Iritzi Publikoa motibatzen duena gizarte osoarekin partekatzen duen ingurumenarekiko kezka da, eta ez horrenbeste norberaren baratzearen ukiezin-tasuna. Kezka hau ez da soilik pertsonala, soziala baizik» (Commoner, 1992:118. Gaztelaniazko bertsiotik egokitutako dugu testua euskarara).

3. Edota Ez Nire Etxe Atzeko Baratzean? Ez da itzulpen erreza, batez ere hizkuntzaren alde etikoa edota suposatzen duen mundu-ikusmena kontuan hartzen badugu (Juaristi, 2.001a), Europako urbanizazio-ereduarekin ere, ez da ondo ezkontzen izen hori.

“NIMBY and Proud!”, “NIMBY naiz eta harro nago”. Gizarte-mugimendu iparramerikarretan gainditu dute NIMBYren estigma eta harrotasuna erakusten dute LULUen (“Locally Unwanted Land Use”, Hemen Nahi/Onartzen ez ditugun Lurraldearen Erabilerak) kontra aritzeko. Euren argudioa erraza da: «Denok gara NIMBY eta inork ez du LULU bat gura, baina batzuk “isileko NIMBYak” dira eta boterebaliabideak dituzte LULUak euren baratzetik urrun kokatzeko. Horrela, LULUak jartzen dira erkidegoak horren kontra era arrakastatsuan jarduteko baliabide gutxien daukan lekuetan» (Morris, 1994:13-18).

Gainera, Saul Alinsky-ren ibilbidea aldarrikatzen dute NIMBYek. Alinsky Chicagoko Unibertsitatean ikasitako soziologoa izan zen. Joan den mendeko 30-70eko hamarkadak bitartean, lehenengo langile-mugimenduarekin eta gero, batez ere auzotarren mugimenduarekin, lan egin zuen. Antolatzaile bat izan zen, batik bat, eta hiriz hiri ibili zen (askotan bertako elizek deitua) auzotarrei hirigintzaren inguruko aldarrikapenak lortzeko protesta-ekintzak antolatzen laguntzeko. Berak sortutako mugimendu ugari eta beste modu batez sortutakoek itzelezko gatazka urbanoak eragin zituzten 60ko hamarkadako gizarte iparramerikarrean. Daniel Bell-ek eta Virginia Held-ek “erkidegoaren, komunitatearen iraultza” deitu zioten horri eta, aurrerago Harry Boyte-k “backyard revolution” (Castells, 1986:87, 101).

Hemen ditugu, bada, hainbat elementu, ondo nahasirik: bizimodu lokalen defentsa, harrotasuna, kanpotik datozen erasoak, identitatea... Bai, azken finean Manuel Castells-ek Informazioaren Gizartea definitzerakoan Identitatearen Boterea deitzen duena topatu dugu. Ikerle honek garrantzi berezia ematen die ekologismoaren aldarrikapenei gizarte globalean identitate lokal berri horien egituratze-prozesuan. Berak dioenez, azken hamarkadetan tokian tokiko erkidegoek eta beren erakundeek —lehen auzotarren mugimenduan espresatzen zirenek— Ingurumenaren Defentsarako mugimendu indartsua gorpuztu dute. Castells-ek egiten dituen tipologietan agertzen dira ere NIMBYak, espazio propioaren defentsan aritzen direnak, helburutzat osasuna eta bizi-kalitatearen mantentzea daukatenak eta identitatea erkidego lokalean topatzen dutenak. Abisatzen du idazle honek “nolabaiteko maltzurkeriaz” NIMBY deitu dietela honako mugimenduei, zeinek errealitatean aktibitate kaltegarrien kokapena —toki pobreenetan— eta espazioaren erabileraren inguruko benetako eztabaida sozialaren falta kritikatzten duten. (Castells, 1998).

Izan ere, ZBkoek, eta oro har Amorebieta-Etxanoko biztanleek, horretaz dihardute beren borrokan. Planteatzen dute ez dutela nahi zentral termikorik Boroan eta ez diotela inori desio eurek jasan gura ez dutena. Gainera, behar energetikoak asetzeko konponbideak diseinatzerakoan —eta, hori baino lehen, behar horiek kalkulatzean— debate tekniko eta ekonomiko, funtsean politiko eta sozial, zabal eta sakona dago, bai Euskal Herrian, bai mundu osoan zehar (Allende, 2001; Martínez, 2002; Bermejo, 2001; Fernández Duran, 1992; Riechmann, 1998; Bárcena, Ibarra eta Zubiaga, 2000).

ZBko aktibistek ezagutzen dute debate hori eta planteatzen dute behintzat EAE mailan eztabaida soziala egon behar dela energia-beharrak nola ase erabakitzeko, baina ezin dela hori laga merkatu kapitalistaren esku, energia berriztagarriak defendatzen dituzte eta konfirmatzen dute bide horretan ez dela ahalegin nahikorik

egiten (López, 2002). Hori gertatzen ez den bitartean eurak eroso daude ezezko jarreraren eta berdin eroso daude Amorebieta-Etxanoko biztanleak, agian debatean horrenbeste sakondu ez dutenak baina antzeko jarrerak mantentzen dituztenak. Eta giro horretan, eta bizi diren gizartea ezagututa, nolabaiteko autozentsura praktikatzen dute eta ZBren izaera monotematikoa beste edozeinen gainetik kokatzen dute.

Gainera badago beste arrazoi bat lokalismoa baztertzeko: Boroako kasuan zentral termikoaren proiektua bultzatzen zuen enpresa kanpoko enpresa bat da, ESB enpresa publiko irlandarra —nahiz eta Bizkaia Energia enpresaren kapitalean beste partaide minoritarioak egon—, zabalpen multinazional bati ekin ziona; beste kasu batzuetan, adibidez Ezkerraldean jarri nahi dituzten zentral termikoenetan, enpresak bertakoak dira baina akziodun indartsuenak —akzio gehien daukatenak, ez erreferentziazko akziodunak— AEBko pentsio-funtsak dira. Oro har, enpresa kapitalistek joera handia daukate nazioarteko hedapenerako, aldi berean finantzare korapilatsuetan sartzeko eta jabegoa kontzentratzeko. Funtsean hori baita globalizazioa deitutako fenomeno (Etxezarreta, 2001)

Aktibistak, beraz, antzoki global horretan mugitzen dira, gizarte globalean, horren pertzepzioan behintzat, baina tokian tokiko ekintzak bultzatzen dituzte, interes tekniko edota ekonomikoen lehentasun abstraktuen gainetik, jendeak espazioaren erabilera erreaz daukan esperientzia erreaz hautatzen dituztelako, oinarrizko tokian tokiko demokraziaren aldarrikapena eginez. Globaltasun horretan eguneroko espazioa erkidegoak ustiatu behar duela planteatzen dute. Espazioaren aldarrikapen horren alboan, denbora glazialaren defentsa dago, natura eta gizakien arteko erlazioa epe oso luzeetan epaitu behar delako (Castells, 1998:149-151).

Eta, agindu bezala, Castelles-ekin batera identitatearen kontura heltzen gara berriz ere. Horrek dioskunez, «bakarrik azalean kontraesankorra den honetan ekologistak lokalistak eta globalistak dira, biak batera: globalistak denboraren ustiaketan, lokalistak espazioaren defentsan» (Castells, 1998:152). Era paradoxiko honetan, mugimendu ekologistak global/lokal dikotomia gainditzen du. Lokal mailan mobilizatzen da, eta interes lokalak —pertsonalak eta erkidego txikienak—, dira mobilizazio horren motorea; baina etxe globala —batik bat bere geroa, epe luzera— dute buruan.

Ezin topatu ZBren errealtateari hobekien egokitzen zaion definiziorik. Horregatik uste dugu EMERen agerpen berri eta berezitua topatu dugula Amorebieta-Etxanon, Euskal Herri globalean ugaritu daitekeen forma, alegia. Azken finean hau oso logikoa da identitatearen bueltan hainbeste neke jasaten duen gizarte batean eta oso esperokoa zen halakorik gertatzea (Juaristi, 2001:90).

Erresistentzia-identitate hauek oso garrantzitsuak izango dira gizarte globalean “identitate-proiektu” direlakoak sortuko dituztelako. Eta ingurumenaren defentsarako mugimenduek oso garrantzi handia izango dute prozesu horretan kode kultural berriak sortu eta zabalduko dituztelako (Castells, 1998:396). Zibilizazio berri bat eskatzen duten heinean, kultura berri hori sortzeari ekin behar diote arazo globalak planteatuz baina koordenada lokaletan kokatuz, jendeak parametro honetan segituko baitu bere esperientzia ebaluatzen (Castells, 2001).

Azken finean, ZB “Amorebieta-Etxano berria” definitzen ari zen bere diskurtsoan —bere hitz eta ekintzetan—, leku bat non aspaldiko arazoak gaindituta Bizitza Ona egin zitekeen, hori bai Osasuna, Bizimodua eta Geroa kaltetu eta arriskuan jarriko lituzkeen zentral termikoaren mamua historian ahaztu eta gero. Azkenean, lan horri eutsi beharko diote, baina mamua haragitu da.

Zornotza Bizirik izandako esperientziatik ikasten: gerora begira

1. Energia, osagai ezkutua. Informazioaren Gizartean bizi gara, gaur egungoa gizarte postindustrial da. Industriaren Gizartearen sorreran energia sortzeko era berriek eduki zuten protagonismo berezia industrian, garraioan eta, oro har, gizartearen antolaketan aldaketa iraultzaileak eragin zituztelako; orain, berriz, ezagutza gorde, mugitu eta trukatzeko era berriak eragiten ari dira aldaketa iraultzaileok eta honi erreparatu behar diogu gizarte berria azaltzekotan (Castells, 1997).

Ados, baina energiak —gehienbat elektrikoak—, era diferenteen bidez sortuak segitzen du gizartea mugitzen eta informazioaren tresneria guztia energia horren beharrean dago, funtzionatu behar badu. Energia, beraz, funtsezkoa da, baina era berean urria da. Erregai fosilen bidez ekoizten da gaur egun neurri handi batean eta horien erreserbak agortzen ari dira. Hurrengo 50 urteetan agortze-prozesu hori larriki bizkortuko da (Fernández Duran, 1992:100-108). Arazo larriak aurreikusten dira energiari eta berau sortzeko moduei dagokienez.

2. Tokian tokiko borrokek begirada zabala (eta luzea) daukate. Gure gizarte mendebalekoan, Bizimodu Onaren gizarteetan, Amorebieta-Etxanon ikusten den paradoxa ikusiko dugu maiz: mobilizatzen dakien mikro-gizarte bat, bere bizi-mailan erasorik onartzen ez duen jendea, honako proiektuak “urrunago eta txikiago” nahi dituen giza taldea. Ekologismoak —Ekologismo Politikoak edota “Deep Ecology” (Castells, 1998:143-146)— egiten duen diskurtsotik (diskurtso kultural eta identitarioa izanik, gizartearen paradigman aldaketa sakonak, erradikalak planteatzen dituen) jasoko dituzte baliabide ideazionalak, mobilizatze gai diren ideia indartsuak, indar-ideiak.

Eta kontrajartzen diren interes ekonomikoak globalak diren heinean —dinamika global batean kokatzen dira, onuradunak askotan oso urrun diren transnazional eta inbertsionistak dira, etab.—, erresistentzia global baten barruan egotearen aldarrikapena bat-batekoa eta erabatekoa da kasu hauetan. Baina, gainera, tokian tokiko mugimendu hauek badaukate denboraren kontzepzio geldoago bat: nork bere ingurua, bere herria oso era mantsoan eraikitzen du (nor hori kolektiboa delarik) eta abiadura handiko dinamika ekonomikoek talka egiten dute eraikitze-prozesu horrekin.

3. Demokraziaren kalitatea, gakoa. Gizakiek euren ahotsa entzun dadin aldarrikatzen segituko dute eta horrek guztiak hausturak eragingo ditu gizartean eta, batez ere, “politikaren porrota” (Zubiaga, 2002) ekar lezake, gobernagarritasun-arazo handiak, “governance” delakoak konponduko ez dituenak (Vidal-Beneyto, 2002). Badirudi ezinbestekoa dela zuzeneko demokrazian sakontzea eta gizartearen parte-hartzea bermatzea —beste gai-zerrenda batekin, beste agenda baten aginduetara eta beste termino politikoetan jokatzeko diren lau urterik behingo

hauteskondeez gain— eztabaida publiko gardena eta aukeren arteko berdintasuna ziurtatuz.

Zentzu horretan, ZBK 2002ko apirilean deitu zuen erreferenduma, bere ahulda-de guztiekin, bada gehiago ase barik dagoen behar baten agerpen puntuala, bere mobilizazioaren propaganda-urratsa baino. Geroan, honelako prozesu kontsultiboak (ez, halaberharrez, erreferendum bat, edota ez kasu guztietan) ugaltzea eta ofizialtasun bat edukitzea zeharo txalogarria dela dirudi. Bestela garraio-azpiegitura erraldoiak, zenbait ekipamendu (hondakin toxikoen biltegiak, kasu) eta energia sortzekoak (batez ere azken hauek, gizakion osasunean arazoak sortzen dituztelako, Amorebieta-Etxanoko kasuak erakusten digun legez) gatazkatsuak izango dira hurrengo urteotan. Garrantzitsua izango da adostasunak lantzea, eta ez sartzea “heroi” eta “maltzurren” peskiza hutsalean (Martínez, 1998).

Aipagai eduki dugun Portugaleteko erreferendum groteskoak —eta Amorebieta-Etxanon egindakoarekiko alderaketak— zenbait lezio ematen digu. Autoritateak deitzen badu erreferenduma, helburuak, parte-hartzea eta prozedurak gorabehera, berez erabat zilegia da hori? Berriz, gizarte zibiletik sortutako erakunde batek deitzen badu, prozedurak ondo gordeta eta parte-hartze homologagarri batekin, berez ez da kontuan hartzekoa, ez da zilegia, deitzaileen helburuek prozesua kutsatzen dutelako? Boterean dauden politikariek kontsultak deitzen dituztenean, ez al dute helburu politikorik? Portugaletekoaren ifrentzua da 2004ko abenduaren 12an Zestoan eginiko herri-galdeketa, Gipuzkoan zaborrak errausteko dauden planen inguruan: alkatearen bermeaz, herri-plataforma batek bultzatuta, erreferendumean herritarren % 60k hartu zuen parte eta % 91k ezetz esan zion Gipuzkoako Aldundiaren planari. Ondorioz, Zestoako Udalerriak beste alternatiba bat topatu beharko du bertako zaborrak tratatzeko.

Parte-hartze demokratikoaren aldarrikapena eta bideragarritasuna zio zentral moduan agertzen baldin badira gaur egungo gizarte aurreratuetan dauden ataketatik irteteko (Giddens, 1994:142-161), gorago planteatzen ditugun galderen inguruko eztabaidak soka luzea izango du gurean. Areago, diskurtso politiko nagusian kontsultaren beharra eta egokitasuna planteatzen bada euskal gizarteak duen buxadura historikotik irteteko modu eredugarri bezala. Gai batzuen inguruan jendeari galdetu aurretiaz landutako onespina lortzeko eta beste batzuei dagokienez, gatazka ekidinezina denean, inola ere ez? Eliteen arteko adostasuna gizarte-mugimenduen aldarrikapenentzat zeharka ezinezko horma moduan agertzen den heinean, demokraziaren lorpenak bete gabeko ametsa izaten jarraituko du.

Bukatzeko, gakoa ez datza bakarrik kontsultak antolatzean edota jendeari bere ahotsa ailegarazi dezan aukerak ematean. Aldaketa kulturalak beharko dira administrazioaren logikan, administratzailearen (dela politikoa, dela teknikaria) eta administratuaren arteko logika dikotomikoan, alegia. Batez ere, tempoak, erritmoak eta epeen dinamikan. Administrazioa logika ekonomikoen abiadura handian kokatzen da normalean eta erresistentziak planteatu nahi dituen jendeak beste dinamika lasaiagoan mugitzen da (Rizoma, 2004) eta askotan galduta gera daiteke alegazio-epe administratiboetan eta zer esanik ez bide juridikoetan sartuz gero.

4. Ukazioaren potentzia, jendetzaren geroa: ZB bezalako mugimenduak berragertzen ari dira indar handiz azkenotan eta nahiko era naturalean kokatzen ari dira “globalizazioaren aurkako” mugimendu-sistema berrituan. Horrek subjektu politiko berria, aldi berean erresistentzia-subjektua eta subjektu eratzailera, borroka-egilea eta sortzailera, mundu berria diseinatzen ari dena (Hardt eta Negri, 2002:372-373) dagoela suposatzen duen ala ez, geroak esango du. Argi dago, ostera, hurrengo urteotan “aurrerabidea” eta “garapena” kontzeptuak kolokan jarriko direla mugimendu horien eraginez (Fernández Duran, 2001).

Eta beste bideak ixten diren heinean, subjektu hauen indarra ukazioan neur-tuko da, agian oraindik denbora luzean. Arestian aipatutako demokrazia sakon-tzeko prozedurak ez badira martxan jartzen, jendetzaren indarra ezetz esaten plazaratuko da. Baina gaur egun ukazio horretan espresatzen da demokrazia globalaren aukera, mundu zuzenago baten aldarria eta berorri eraikitzeko proiektua. Tokian tokiko galtze, frustrazio eta garaipen partzialen metaketatik sortuko da jendetzaren geroa (Hardt eta Negri, 2004:13, 406)

Erabilitako bibliografia

- Allende, J. (2001): “Debate energético aún pendiente” eta “¿Amorebieta (ESB) o Abanto (Petronor)?”. Iritzi artikulua prentsan, bi zatitan, argitaratua. *Gara*. 2001-10-9/10
- Astorki Hualde, J. M. (1994): “Evolución de la abstención electoral en España: 1976-1991”, in Castillo, Pilar del (argitaratzailea), “*Comportamiento Político y Electoral*”, CIS, Madril.
- Barcena, I., Ibarra, P. eta Zubiaga, M. (1996): “Movimientos sociales y democracia en Euskadi”. *Mientras tanto* **64**, 91-124.
- Bermejo, R. (2001): “Interés Nacional Eléctrico” (Iritzi-artikulua prentsan), *El Correo*, Bilbo, 2001-11-20.
- Casquete, J. (1998): “*Política, cultura y movimientos sociales*”, Bakeaz, Bilbo.
- , (2000): “La sociedad vasco-navarra de movimientos”, in J. Beriain eta R. Fernández (koord.), “*La cuestión vasca: Claves de un conflicto cultural y político*”, Proyecto A Ediciones.
- , (2001): “*Acción colectiva y Sociedad de Movimientos*”, Eusko Jaurlaritzza-Lehendakaritza (Soziologiako euskal koadernoak), Gasteiz.
- Castells, M. (1986): “*La ciudad y las masas*”, Alianza, Madril.
- , (1997): “*La era de la información. La sociedad red*”, Alianza, Madril.
- , (1998): “*La era de la información. El poder de la identidad*”, Alianza, Madril.
- , (2001): “La sociología urbana en el siglo XXI”, in I. Susser (arg.), “*La Sociología Urbana de Manuel Castells*”, Alianza, Madril.
- Castillo, P. del (argitaratzailea) (1994): “*Comportamiento Político y Electoral*”, CIS, Madril.
- Commoner, B. (1992): “*En paz con el planeta*”, Crítica, Bartzelona.
- Etxezarreta, M. (2001): “Algunos rasgos de la globalización”, in R. Fernández Duran; M. Etxezarreta eta M. Sáez, “*Globalización capitalista. Luchas y resistencias*”, Virus, Bartzelona.
- EUSTAT (2002): “Udal-adierazleak”. Web orrialdea (www.eustat.es). Gasteiz.
- Fernández Duran, R. (1992): “*La explosión del desorden*”, Fundamentos, Madril. (bigarren edizioa).
- , (2001): “Capitalismo global, resistencias sociales y estrategias del poder”, in R. Fernández Duran; M. Etxezarreta eta M. Sáez, “*Globalización capitalista. Luchas y resistencias*”, Virus, Bartzelona.
- Giddens, A. (1994): “*Consecuencias de la modernidad*”, Alianza, Madril.

- Gurrutxaga, A.; Pérez-Agote, A. eta Unceta, A. (1990): *"Estructura y procesos sociales en el País Vasco"*, EHU, Bilbo.
- Hardt, M. eta NEGRI, A. (2002): *"Imperio"*, Paidós, Bartzelona.
- eta —————, (2004): *"Multitud. Guerra y democracia en la era del Imperio"*, Debate, Bartzelona.
- Herreros, F. eta Francisco, A. de (2001): "Introducción: el capital social como programa de investigación", *Zona Abierta* **94/95**: 1-46.
- Ibarra, P. (1995): "El discurso medioambiental", in I. Barcena; P. Ibarra eta M. Zubiaga, *"Nacionalismo y Ecología"*, Los libros de la catarata, Madril.
- Juaristi Larrinaga, P. (2001): *"Euskal Herria globalizazioaren aurrean"*, Euskaltzaindia/BBK Fundazioa, Bilbo.
- Larrinaga, J. (2003): "Zornotza Bizirik: Ez Gure Etxe Globalaren Baratzte Lokalean", in Barcena, I. (koord.): *"Globalizazioa eta Ingurumena: Euskal begirada bat"*, UEU, Bilbo.
- López, L. M. (2002): "El poder verde del sol, el agua y el fuego". (Prentsa albistea) *El País*. 2002-6-1.
- Llera, F. (1994): *"Los vascos y la política"*, EHUren Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- Martínez, L. (2002): "El nuevo sector eléctrico". *El Ecologista* 2002ko udaberria: 26-29
- Martinez, Zesar (1998): "Participación en formas de acción colectiva y potencial de movilización colectiva en el País Vasco", *Inguruak* **21**, 147-175.
- McAdam, D., McCarthy, J. D. eta Zald, M. N. (1999): *"Movimientos sociales: Perspectivas comparadas"*, Istmo, Madril.
- Morris, J. A. (1994): *"Not In My Back Yard. The Handbook"*, Silvercats Publications, San Diego (CA).
- Riechmann, J. (koordinatzailea) (1998): *"Necesitar, desear, vivir"*, Los libros de la catarata, Madril.
- RIZOMA kolektiboa (2004): "Manual para uso de territorios sobredesarrollados. Dualidades y acoplamientos: administradores y administrados", *Archipiélago* **62**, 81-88.
- Tarrow, S. (1997): *"El poder en movimiento"*, Alianza, Madril.
- Taylor, B. R. (1995): "Popular Ecological Resistance and Radical Environmentalism", in B. R. Taylor (arg.), *"Ecological Resistance Movements"*, State University of New York Press, Albany.
- Vidal-Beneyto, J. (2002): "Gobernabilidad y gobernanza" (Iritzi-artikulua). *El País*. 2002-4-12.
- Vos, R. O.; Kamieniecki, Sh. eta Coleman, S. D. (1995): "The Effectiveness of Radical Environmentalists", in B. R. Taylor (arg.), *"Ecological Resistance Movements"*, State University of New York Press, Albany.
- Zubiaga, Mario (1995): "Euskal Herriko mugimendu ekologistaren ingurune politikoa", in I. Barcena, P. Ibarra eta M. Zubiaga, *"Nacionalismo y Ecología"*, Los libros de la catarata, Madril.
- , (2002): "Politikaren porrota" (Iritzi-artikulua). *Euskaldunon Egunkaria*. 2002-1-23.

